BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2671

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 22koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Aldetu, S.A. enpresari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Lemoako (Bizkaia) udalerrian automobilgintza sektorerako hodiak fabrikatu, eraldatu eta mekanizatu ditzan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 28an, Javier Aldecoa Acaiturrik, Aldetu, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Lemoako (Bizkaia) udalerrian automobilgintza sektorerako hodiak fabrikatu, eraldatu eta mekanizatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, ondorengo dokumentu teknikoak bidali zituen:

- 1. liburukia: «Proiektu teknikoa» (2006ko abendua).
- 2. liburukia: «Eranskinak» (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Aldetu, S.A. enpresak, besteak beste, altzairua eraldatu eta mekanizatzeko jarduerarako baimena, 1991ko azaroaren 19koa, eta hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, 2002ko azaroaren 11koa, zituen.

2007ko martxoaren 27an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea agindu zezan. Zehazki, Lemoako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Iparraldeko Ur-konfederazioari egin zitzaien eskaera.

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2007ko martxoaren 1ean eta 2007ko urriaren 11n; sustatzaileak 2007ko uztailaren 17an eta 2007ko azaroaren 8an bidali zituen eskatutako agiriak.

Aurkeztutako agiriak nahikoak zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2008ko abuztuaren 27an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Aldetu, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko irailaren 17an. Era berean, proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urriaren 29an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Lemoako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2009ko maiatzaren 20an Aldetu, S.A. enpresak ibilgura isurtzeari buruzko informazio osagarria aurkeztu zuen ingurumen organoaren aurrean.

2009ko ekainaren 3an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostena eskatu zion Iparraldeko Ur-konfederazioari.

2009ko ekainaren 23an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Aldetu, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta. Ez zuen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta –lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Aldetu, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; ibilgura eta saneamendu sare nagusira isurketak egiteko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako baldintzak aplikatuz, Aldetu, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Lemoako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastic BREF txostenaren edukia kontuan hartu da. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 728/1998 Errege Dekretua. Honen bidez, Ontzien eta Ontzi-hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Araudia onartzen da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, Ebazpen-proposamena sinatu eta Aldetu, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Ondorengo araudia aztertu da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2009ko ekainaren 23an egindako Ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lemoako (Bizkaia) udalerriko Bolunburu auzoko La Flecha industrialdeko 3. zenbakian helbide soziala eta IFK: A-48147144 zenbakia duen Aldetu, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Lemoako udalerrian automobilgintza sektorerako hodiak fabrikatu, eraldatu eta mekanizatzeko jarduerarako eta Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Halaber, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Prozedura elektrolitiko edo kimikoaren bidez metalen eta plastikozko materialen gainazala tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Enpresa Bolunburu auzoko La Flecha industrialdeko 3. zenbakian kokatzen da, Bizkaiko Lemoako udalerrian.

Instalazioek bi industria-nabe eta hainbat instalazio osagarri dituzte, eta guztira, 8.615 m^2 betetzen dituzte, horietako 7.615 m^2 estalita daudelarik.

Aldetu, S.A. enpresaren produkzio-ahalmena urteko 5.500 tonakoa da.

Aldetu, S.A. enpresaren produkzio-jarduera soldadura duten edo soldadurarik gabeko hodi kalibratua fabrikatzean eta automobilgintza sektorerako hodia eraldatu eta mekanizatzean oinarritzen da.

Urteko energia elektrikoaren kontsumoa 1.676.788 KWh da. Propano eta gasolioaren kontsumoa, urteko 2.076 kg eta urteko 3.471 litro da, hurrenez hurren.

Aldetu, S.A. enpresak garatzen dituen prozesu nagusiak honako hauek dira:

● Desugertze-saila.

Jarduerak azido klorhidrikoa duen desugertze-saila du lehengai gisa erabiltzen diren hodiak garbitzeko.

● Fosfatatze– eta xaboitze-saila.

Bezeroak horrela eskatuta, pieza batzuk fosfatatu eta xaboitu egin behar dira.

● Luzatze-saila.

Hotzean luzatzeko prozesu honen bidez, hasiera batean dimentsio kopuru murritzagotik abiatuz, bukaeran dimentsio anitzak eskuratu daitezke (kanpoko eta barruko diametroa), akaberako produktuarentzat beharrezkoak direnak.

● Zorroak fabrikatzeko saila.

Hodian akaberako dimentsioak erdietsi ondoren, zorroak fabrikatzeko sailera pasatzen da. Zorroak fabrikatzeko prozesua, hodiak bezeroak eskatzen duen akaberako neurrian ebakitzen dituzten tornuetan hodiak (akaberako kanpoko eta barruko diametroak jada dituztenak) sartzean datza. Prozesu horren ondotik, bidalketa-sailera pasatzen dira.

● Direkzio-barrak fabrikatzeko saila.

Direkzio-barrak fabrikatzeko erabilitako hodi gehienak produktuaren bukaerako dimentsioak dituztela erosten dira. Soilik gutxiengoak jasaten du luzatze-prozesua. Direkzio-barrak fabrikatzeko prozesua hodia bukaerako tamaina baino tamaina handiagoan ebakitzean datza. Kasu batzuetan muturretako batean edo bi muturretan hodia murriztu egiten da (bezeroak eskatzen duenaren arabera) eta azkenik, mekanizazio-zentro batean barrak sartzen dira. Bertan, barrari bukaerako luzera ezartzen zaio eta halaber, ondorengo eragiketak gauzatzen dira: artekaketa, fresaketa, mandrinaketa, hariztaketa...

Batzuetan, bezeroak barra kurbatuak edo soldatutakoak eskatzen ditu. Kasu horietan, mekanizazio-zentroaren ostean, barrak prentsa batean sartzen dira eta bertan, kurbatu egiten dira edo/eta soldatze-sailera eramaten dira.

● Karkasak fabrikatzeko saila.

Karkasak fabrikatzeko erabiltzen diren hodiak erosi egiten dira. Hodia bukaerakoa baino handiagoa den tamainan ebaki ondoren, karkasak garbitu eta olioztatu egiten dira, eta ondoren, kalibratu egiten dira, bukaerako kanpoko eta barruko diametroak eskuratu ahal izateko. Ondoren, mekanizazio-gunera pasatzen dira CNC tornuetan bezeroak eskatutakoaren arabera piezaren bukaerako forma lortu ahal izateko.

● Aurpegi lauak fabrikatzeko saila.

Luzatze-sailean hodiaren bukaerako dimentsioak (aurpegi lauak, Ø kanpokoa eta Ø barrukoa) eskuratu ondoren, ebaki egiten dira zorroen sailean bukaerako luzera lortu ahal izateko. Ondoren, zorro horiek lehenik eta behin prentsa batetik pasatzen dira zirrindola sartu ahal izateko. Zirrindola soldatu egiten da gero. Azkenik, beste prentsa batetik pasatzen da eta bertan, matrizea eta puntzoiaren bidez zuloak eta artekak egiten zaizkio.

● Brotxatzeko saila.

Bi motako brotxaketak egiten dira: kanpokoa eta barrukoa. Barruko brotxaketa bezeroak emandako piezei egiten zaie, eta kanpoko brotxaketa, berriz, jada instalazioetako beste lerro batzuetatik pasatu diren piezei.

Kanpoko brotxaketa, barra bati brotxa izeneko erreminta baten bidez material-harroketa egitean datza.

Barruko brotxaketa materiala piezaren barrualdetik harrotzean datza, izar forma duen barruko Ø sortuz.

● Triangeluarrak fabrikatzeko- luzatzeko saila.

Hodia luzatu eta piezak erdiko dimentsiotan ebaki ondoren, hainbat eraldaketa jasaten dituzte prentsetan.

Eraldaketa horiei esker, triangelu formako piezak, muturretan alde lauak dituztenak, alde ildokatuak dituztenak fabrikatu daitezke.

Ondoren, bezero bakoitzaren eskakizunen arabera, azkoinak sartu, zirrindolak soldatu, kodeak grabatu, eta abar egin daitezke.

Aldetu, S.A. enpresaren instalazioetan atmosferara isurtzen duen foku bat dago eta sortutako isurtzeak arazteko gas-garbigailu bat du.

Instalazioetan ibilgura isurtzen duten hiru puntu daude: pabiloi zaharretik datozen industriako ur-fluxua eta ur sanitarioaren fluxua, eta pabiloi berritik datorren ur sanitarioaren fluxua. Gainera, ibilgura isurtzen duen euri-uren fluxu bat ere badago.

Aldetu, S.A. enpresak aurkeztutako proiektuak teknika onenen erabilera (TOE) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: Eroale eta konektoreen arteko tentsio-erortzeen murrizketa; energia erreaktiboaren galeren minimizazioa; energia eraginkorreko ekipoen erabilera; prozesuen energia eraginkortasunaren optimizazioa; prozesuko disoluzioen bero-galeren murrizketa; hainbat uren berrerabilera; arrasteak saihesteko produktu kimiko bateragarriak, dunbalak edo danborrak erabiltzea; garbiketa kimikoaren bidez urberritzea; uraren kontsumoa urberritze anitzen bidez murriztea; prozesu kimikoen kontzentrazioaren kontrola; prozesuko disoluzioen mantentze-lanak; erabilitako koipe-kantitatea koipegabetzean minimizazioa edo ingurumen-inpaktu txikiagoa eragiten duten olioak eta koipeak aukeratzea; ahalik eta ingurumen-inpaktu gutxiena duen koipegabetze-urtsu sistema aukeratzea, konposatu kimikoak ahalik eta gutxien erabiltzea eta koipegabetze-bainuaren denbora luzatzea; arazoak dituzten fluxuak identifikatzea; hondakin-urak tratatzean eragile kutsatzaileak ezabatzea edo/eta bereiztea; metalen malutapena eta prezipitazioa; anioien prezipitazioa eta hondakin-uren monitorizazioa, isurtze atmosferikoak murrizteko gehigarriak erabiltzea; airea erauztea; etapak eta tratamendu-teknikak.

Bigarrena.– Honako baldintzak eta eskakizunak ezartzea Aldetu, S.A. enpresak Lemoako udalerrian automobilgintza sektorerako hodiak fabrikatu, eraldatu eta mekanizatzeko jarduera ustiatzeko:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Aldetu, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Lemoako udalerriko Bolunburu auzoko La Flecha industrialdeko 3. zenbakian kokatzen den Aldetu, S.A. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Aldetu, S.A. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera	Diametroa	Katalogazioa	UTM koodernatuak	
					Taldea	X	Y
1	48000077-01	Desugertze-bainuen xurgapena	9 m	0,8 m	C	519858	4784436

Horretaz gain, ondorengo prozesuetan isurtze barreiatuak sortzen dira:

- Desugertze-bainuak, ur-bainuak eta neutralizatzaile-bainuak.
- Fosfatatzeko unean zorroak fabrikatzea.
- Ibilgailuetatik eratorritako barruko garraioa.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	500 mg/Nm^3
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG bezala adierazita), ez dira isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketa batek ere isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu (1,5 baino gehiagoko aldea).

c) Ezarritako IMBak lortzen ez badira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko dira (arazteko sistemak instalatzea, eta abar) atmosferara egiten diren isurtzeen balio horiek betetzen direla ziurtatzeko.

B.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko xedearekin, isurtzeak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan egokiak egingo dira, eta gainera, beste jarduera hauek: Gainera, isurtze horiek minimizatzea ziurtatuko duten jarduerak egingo dira; hala nola, instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, nabe nagusia ixtea, etab. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.2.– Isurketak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: soldadura duen edo soldadurarik gabeko hodi kalibratuaren fabrikazioa eta automobilgintza sektorerako hodiaren eraldaketa eta mekanizazioa.

Jarduera-taldea: 2.6. Gainazalen tratamendu elektrolitikoa edo kimikoa.

Mota-taldea-EJSN: 2-1-28110 «Metalezko egiturak eta euren atalak fabrikatzea».

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	UTM koodernatuak
1	Desugertze-urak	Pabiloi zaharreko fluxu araztua (desugertze/ fosfatatze-xaboitze prozesua)	Ibaizabal ibaia	Ibaizabal	I	X: 519.870 Y:.784.463
2	Luzatze-guneko sanitarioak	Pabiloi zaharra	Ibaizabal ibaia	Ibaizabal	I	X: 519.870 Y:4.784.463
3	Zorroen guneko eta produkzio-bulegoetako sanitarioak	Pabiloi berria	Ibaizabal ibaia	Ibaizabal	I	X: 519.918 Y:4.784.539

B.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: Desugertze-urak.

Eguneko batez besteko bolumena	23,4 m^3
Urteko gehienezko bolumena	5.160 m^3

b) 2. isurketa: Luzatze-guneko ur sanitarioak.

Eguneko batez besteko bolumena	2 m^3
Urteko gehienezko bolumena	440 m^3

c) 3. isurketa: Zorroen guneko eta produkzio-bulegoetako ur sanitarioak.

Eguneko batez besteko bolumena	2 m^3
Urteko gehienezko bolumena	440 m^3

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Isurketa sortzen duen jardueraren berezko parametroak jarraian zerrendatzen direnak dira soilik. Ur sanitarioak (2. eta 3. isurketak) arazteko egun dauden hobi septikoen tratamenduaren osagarri gisa iragazki biologikoak ezartzen diren bitartean, horietako bakoitzarentzat ondorengo isurtzeko muga-balioak bete beharko dira:

a) 1. isurketa: Desugertze-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Solido esekiak (SS)	<30 mg/l
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	<160 mg/l-
Guztizko fosforoa	<10 mg/l
Guztizko hidrokarburoak	<5 mg/l
Burdina (Fe_T)	<5 mg/l
Zinka (Zn_T)	<2 mg/l
Níkela (Ni_T)	<2 mg/l

b) 2. eta 3. isurketak: luzatze-guneko eta zorroen guneko eta produkzio-bulegoetako ur sanitarioak:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Solido esekiak (SS)	<150 mg/l
OEK	<500 mg/l
DBO_5	<200 mg/l
Olioak eta koipeak	<20 mg/l
Amonioa	<160 mg/l
Detergenteak	<5 mg/l

Aipatu iragazkiak ezarri ondoren, instalazioaren titularrak errespetatu beharreko isurtzeko muga-balioak ondorengoak izango dira:

a) 1. isurketa: Desugertze-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Solido esekiak (SS)	<30 mg/l
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	<160 mg/l-
Guztizko fosforoa	<10 mg/l
Guztizko hidrokarburoak	<5 mg/l
Burdina (Fe_T)	<5 mg/l
Zinka (Zn_T)	<2 mg/l
Níkela (Ni_T)	<2 mg/l

b) 2. eta 3. isurketak: luzatze-guneko eta zorroen guneko eta produkzio-bulegoetako ur sanitarioak:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Solido esekiak (SS)	<80 mg/l
OEK	<160 mg/l
DBO_5	<40 mg/l
Olioak eta koipeak	<20 mg/l
Amonioa	<15 mg/l
Detergenteak	<2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Horrela ez bada, titularrak behar den tratamendua ezarri beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzien isurketarik onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko hidraulikoari buruzko araudia onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

Terrazek, biltegiek eta abarrek gainezka eginagatiko isuriak ez dira baimentzen, ezkutuko purgatzea bailirateke. Horrelakorik egonez gero, adierazi eta baimen honi dagokion aldaketa eskatu beharko da.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Industriako hondakin-uren arazketa-instalazioek edo neurri zuzentzaileek enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean.

Instalazioak desugertze-urentzako 20 m^3/h-ko ahalmena duen arazketa fisiko-kimiko sistema du eta bertan, karearen bidez neutralizazioa eta polielektrolitoa duen dekantazioaren bidez iragazketa gauzatzen da.

Arazketa-instalazio fisiko-kimiko horrek honako elementu hauek ditu:

- Ponpa pneumatikoa duen efluenteak biltzeko ponpatze-putzua.
- PH-a automatikoki doitzeko neutralizazio-gordailua, irabiagailu mekanikoa eta pH zunda dituena.
- Ponpa dosifikatzailea duen sosa-gordailua.
- Burdinaren oxidaziorako aireztapen-gordailua.
- Kontzentratuei eusteko eta dosifikatzeko gordailua.
- Orrizko dekantagailua.

● Prentsa-iragazkia dekantatutako lohiak deshidratatzeko.

● pH-aren kontrolatzailea.

Desugertze-instalazioaren etengabeko efluenteak putzutik arazketa-instalazioraino ponpatzen dira. Bertan, lehenik neutralizatu egiten da pH kontrolatzailea duen kare-esnearen dosifikazioaren bidez. Ondoren, burdina oxidatzen da aireztapenaren bidez eta jarraian, orrizko dekantagailuaren sarreran polielektrolito bat dosifikatzen da lohien prezipitazioa erraztu ahal izateko.

Lohi horiek kono-formako gunetik purgatzen dira eta lohien kontzentratzailera eramaten dira, ondoren prentsa-iragazkiaren bidez lehortu daitezen.

Orrizko dekantagailuan iragazitako isurketak goiko aldetik gainezka egiten du eta irteerako pH-a kontrolatzen da. Isurtzeko mugen barruan baldin badago, elektrobalbula baten bidez kanpora irteten da. pH-a okerra bada, elektrobalbulak hasierako ponpatze-putzura deskargatzen du isurketa berriz ere tratatu dadin.

Bestalde, ur sanitarioak tratatzeko gune bakoitzean hobi septiko bat dago, 0,08 m^3/h-ko ahalmena duena (13 biztanleren baliokidea).

Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita sei (6) hilabeteko epean ezarri beharko dira iragazki biologikoak, gaur egun ur sanitarioak (2. eta 3. isurketak) arazteko dauden hobi septikoen tratamendu osagarri gisa.

Gainera, egokitzapen-plan bat aurkeztu beharko da. Plan horrek luzatze-guneko desugertze-uren eta ur sanitarioen bereizketa edo/eta bi fluxuentzako kontrol-kutxeta bereizleen ezarpena jaso beharko ditu, emariaren neurketa eta lagin esanguratsua hartze aldera.

Aipatutako jarduketa-planaren aplikatzekoak diren arazketa-instalazioen eta neurri zuzentzaileen betearazpena eta abian jartzea egiaztatu beharko ditu titularrak Ingurumen Sailburuordetzaren eta Uraren Euskal Agentziaren aurrean, 2010eko maiatzaren 31 baino lehen.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, baimenaren baldintzak betetzearen arduradun izanik, Aldetu, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrol-kutxeta bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak Administrazioak egoki deritzonean ikuskatzeko sarbide zuzena duen lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Kasu honetan, efluenteak kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea:

● Emari-neurgailu erregistratzailea.

● pH neurgailua.

B.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien Kontro-kanona= $V \times P_u$.

$P_u = P_b \times C_{m.}$

$C_m = C_2 \times C_3 \times C_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_b = Oinarrizko prezioa m^3-ko, isurketaren izaeraren arabera ezarrita.

C_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C_2 = Koefizientea, isurketaren ezaugarrien arabera.

C_3 = Koefizientea, isurketaren kutsadura-mailaren arabera.

C_4 = Koefizientea, ingurune hartzailearen kalitatearen arabera.

2010eko maiatzaren 31 arte.

1. isurketa: Desugertze-urak.

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Industriala C_2: 1. mota substantzia arriskutsuekin C_3: Tratamendu egokirik gabe C_4: Kategoria-eremua: I	V = 5.160 m^3/ urte P_b = 0,03005 €/m^3 C_2 = 1,28 C_3 = 2,5 C_4 = 1,25

$C_m = 1,28 \times 2,5 \times 1,25 = 4$.

$P_u = 0,03005 \times 4 = 0,1202$ euro/ m^3.

IKK = 5.160 × 0,1202 = 620,23 euro/urte.

2. isurketa: Luzatze-guneko ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Hirikoa C_2: 1.999 biztanleren baliokidera arte C_3: Tratamendu egokirik gabe C_4: Kategoria-eremua: I	V = 440 m^3/ urte P_b = 0,01202 €/m^3 C_2 = 1,0 C_3 = 2,5 C_4 = 1,25

$C_m = 1,0 \times 2,5 \times 1,25 = 3,12500$.

$P_u = 3,12500 \times 0,01202 = 0,03756$ euro/ m^3.

IKK = 440 × 0,03756 = 16,53 euro/urte.

3. isurketa: Zorroen guneko eta produkzio-bulegoetako ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Hirikoa C_2: 1.999 biztanleren baliokidera arte C_3: Tratamendu egokirik gabe C_4: Kategoria-eremua: I	V = 440 m^3/ urte P_b = 0,01202 €/m^3 C_2 = 1,0 C_3 = 2,5 C_4 = 1,25

C_m = 1,0 × 2,5 × 1,0 = 3,12500.

P_u = 3,12500 × 0,01202 = 0,03756 euro/ m^3.

IKK = 440 × 0,03756 = 16,53 euro/urte.

Isurien kontrol-kanona guztira: 620,23 + 16,53 = 653,29 euro/urte.

2010eko ekainaren 1etik aurrera.

1. isurketa: Desugertze-urak.

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Industriala C_2: 1. mota substantzia arriskutsuekin C_3: Tratamendu egokia C_4: Kategoria-eremua: I	V = 5.160 m^3/ urte P_b = 0,03005 €/m^3 C_2 = 1,28 C_3 = 0,5 C_4 = 1,25

C_m = 1,28 × 0,5 × 1,25 = 0,80000.

P_u = 0,80000 × 0,03005 = 0,02404 euro/ m^3.

IKK = 5.160 × 0,02404 = 124,05 euro/urte.

2. isurketa: Luzatze-guneko ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Hirikoa C_2: 1.999 biztanleren baliokidera arte C_3: Tratamendu egokia C_4: Kategoria-eremua: I	V = 440 m^3/ urte P_b = 0,01202 €/m^3 C_2 = 1,0 C_3 = 0,5 C_4 = 1,25

C_m = 1,0 × 0,5 × 1,25 = 0,62500.

P_u = 0,62500 × 0,01202 = 0,00751 euro/ m^3.

IKK = 440 × 0,00751 = 3,30 euro/urte.

3. isurketa: Zorroen guneko eta produkzio-bulegoko ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Hirikoa C_2: 1.999 biztanleren baliokidera arte C_3: Tratamendu egokia C_4: Kategoria-eremua: I	V = 440 m^3/ urte P_b = 0,01202 €/m^3 C_2 = 1,0 C_3 = 0,5 C_4 = 1,25

C_m = 1,0 × 0,5 × 1,25 = 0,62500.

P_u = 0,62500 × 0,01202 = 0,00751 euro/ m^3.

IKK = 440 × 0,00751 = 3,30 euro/urte.

Isurien kontrol-kanona guztira: 124,05 + 3,30 + 3,30 = 130,65 euro/urte.

Kanonaren zenbatekoa ez da aldatuko isurtzeko baimenaren baldintzak edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak baimenaren titularrari urte horri dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

Isurien kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin (ULTBren 113.7. artikulua).

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia eta gertutasun printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Lemoako Udalean.

B.3.1.– Hondakin Arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Mekanizazioa».

○ 1. hondakina: «Olioa».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A241//B3140.

– EHZ kodea: 120107.

– Urtean sortutako kantitatea: 12 tona.

Altzairuzko hodiak kalibratzeko eta ekipo eta makinen olioa birjartzeko eragiketetan sortzen da; olio mineralak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Taladrina».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L9//C51//H5//A241//B3140.

– EHZ kodea: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 tona.

Mekanizazio-eragiketetan taladrina erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; emultsio oliotsua da.

Makinak garbitzean hondakin horrentzako berariaz identifikatutako bidoian biltzen da eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Olioa urarekin».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//L9//C51//H5//A241//B3140.

– EHZ kodea: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 tona.

Makinen andelak garbitzerakoan sortzen da; halogenorik gabeko mekanizazioaren hondakin emultsionatuak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

● 2. prozesua: «Fosfatatzea».

○ 1. hondakina: «Azido fosforikoaren soluzioa».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//L27//C23//H8//A241//B3127.

– EHZ kodea: 110106.

– Urtean sortutako kantitatea: 8 tona.

Fosfatatze-upela berritzerakoan sortzen da; azido fosforikoaren soluzioa da.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da, eta hondakinen biltegian gordetzen da.

○ 2. hondakina: «Kloruro ferrosoa».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//R5//L27//C23//H8//A241//B3127.

– EHZ kodea: 110105.

– Urtean sortutako kantitatea: 68.440 kilogramo.

Bainu agortua erretiratzean sortzen da; soluzio azidoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da, eta hondakinen biltegian gordetzen da.

● 3. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Botoi-pilak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H14//A241//B0019.

– EHZ kodea: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: Kilogramo 1.

Mantentze-lan orokorreko azpiprozesuan pila agortuak berritzeko lanetan sortzen da. Merkurioa duten pila erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean biltzen da sortzen den lekuetan; edukiontzi horretatik zuzenean ateratzen da baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 2. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A241//B0019.

– EHZ kodea: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kilogramo.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan; merkurioa duten lanpara erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean biltzen da sortzen den postuan.

○ 3. hondakina: «Lurzoruak garbitzeko ura».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//L34//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ kodea: 120301.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 tona.

Zola garbitzerakoan sortzen da; substantzia oliotsuak dituen ura da.

Hondakin horrentzako identifikatutako bidoian biltzen da eta hondakinen biltegian gordetzen da.

● 4. prozesua: «Hondakinak elkartzea».

○ 1. hondakina: «Hondakin arriskutsuak eduki dituzten metalezko bidoi hutsak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 750 kilogramo.

Substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatutako metalezko ontziak dira; orokorrean olioak eduki dituzte.

Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan biltzen da hondakinen biltegian.

○ 2. hondakina: «HC eduki duten enbalaje-plastikoak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S40//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ kodea: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Makinentzako substantziak kontsumitzean sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «HC-z kutsatutako xurgatzaileak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q4//D15//S40//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Hidrokarburoz bustitako material xurgatzailea da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «HC-z kutsatutako papera».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 tona.

Olioz eta koipez bustitako paperak eta trapuak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «HC-z kutsatutako zerrautsa».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//L34//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ kodea: 120301.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 tona.

Enpresaren produkzio-prozesuetan sortzen da; hidrokarburoz kutsatutako zerrautsa da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Lohi oliotsuak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/6.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//P8//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ kodea: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.962 kilogramo.

Putzuak eta bainuen guneak garbitzearen ondorioz sortzen den hondakina da; hidrokarburoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «Olio organiko oliotsua».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//P9-20//C23-51//H4-6//A241//B9711.

– EHZ kodea: 130206.

– Urtean sortutako kantitatea: 10.731 kilogramo.

Makinak garbitzearen ondorioz sortzen den hondakina da; hidrokarburoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 8. hondakina: «HC-z kutsatutako eskularruak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34-40//C41-51//H14//A241//B9711.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 436,8 kilogramo.

Luzatze-prozesuetan eta zorroak fabrikatzean sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bagetan jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten dira.

○ 9. hondakina: «HC-z kutsatutako trapuak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/4/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34-40//C41-51//H14//A241//B9711.

– EHZ kodea: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.700 kilogramo.

Zorroak fabrikatzeko prozesuan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bagetan jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

● 5. prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Prentsa-iragazkiaren opilak».

– Identifikazioa: A48147144/4800015420/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S27//C24//H6//A241//B0005.

– EHZ kodea: 190813.

– Urtean sortutako kantitatea: 9.720 kilogramo.

Hondakin-uren tratamendu-prozesuaren ondorioz sortutako lohiak loditzearen ondorioz sortzen da; soluzio basikoak ditu.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko da, hondakina lehenengoz hustu aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Aldetu, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Aldetu, S.A. enpresak erabilitako olioa industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko olio erabiliaren kudeaketari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatu beharko du.

i) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

j) Aldetu, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Aldetu, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Aldetu, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

l) Aldetu, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio IKS-eeM Sistemaren bidez.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Aldetu, S.A. enpresak neurri zuzentzaileak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

o) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistema erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Aldetu, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Hobi septikoko lohiak	200304	Orokorra	10 m^3
Txatarra	200140	Ebaketa eta mekanizazioa	192 tn
Txirbilak	120101	Ebaketa eta mekanizazioa	408 tn
Aluminioa	200140	Ebaketa eta mekanizazioa	8,4 tn
Papera eta kartoia	200101	Orokorra	2 tn
Zaborra	200301	Orokorra	36 tn

a) B.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, zaborra izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan

ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Aldetu, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakinak zabortegian utziz eta betelanak eginez ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak xedatutakoari jarraituz, baimendutako zabortegia helmuga duten hondakin ez-arriskutsuak bertara eraman aurretik, dagokion jarraipenerako eta kontrolerako agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistema erabilita.

B.4.– Lurzoruaren kalitatea babesteko neurri orokorrak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Aldetu, S.A. enpresak honako informazioa aurkeztu beharko du:

● Desugertze-lerroan eta produkzio-guneetan piezak modu egokian xukatzeko gune bat izan beharko da, kubeta edo isuri txikiak xurgatzeko material gisa eusteko ekipoak modu egokian itxita.

● Olioaren galeraren edo hormigoira zuzenean isuritako taladrinaren, makinen eguneroko jardueraren ondorioz gertatutakoa, begi-bidezko kontrola.

● Olioen isurketak hormigoian geratu eta ondoren langileek pabiloietako beste gune batzuetara arrastatzea saihesteko, jardueraren hondakin hauek garbitu edo xurgatzeko protokoloa izan beharko da.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB eta 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 eta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara egindako isurtzeak kontrolatzea.

a) Aldetu, S.A. enpresak isurtzeak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48000077-01	Desugertze-bainuen xurgapena	Azido klorhidrikoa (HCl)	Bost urtean behin
			Guztizko partikulak (PT)	
			Nitrogeno oxidoak (NO_X)	
			Zinka	
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	
			Nikela	

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde baimendu (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeen kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Aldetu, S.A. enpresak garatutako jarduera zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzerakoan sortzen diren konposatu organiko hegazkorrak isurtzeari buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren preskripzioen menpe dagoen zehazte aldera, jardueran kontsumitutako disolbatzaileei buruzko informazioa igorri beharko du urtero. Aplikatu behar izanez gero, aipatu arauan xedatutakoa bete beharko du eta helburu horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak horren inguruan eskatutako informazioa erantsi beharko du.

e) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Tratatutako ura etengabe neurtzeko pH-neurgailua eta isuritako uren emari-neurgailua izatea nahitaezkoa izango da. Neurketarako tokiko adierazlea, alarmak bi kontsigna-puntuetan eta

Administrazioaren esku egongo diren datu historikoen biltegiratze– eta kudeaketa-sistema izan beharko dute.

b) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Desugertze-urak	pH, emaria	Etengabea	Autokontrola
		pH, SS, OEK, Zn_T, Fe_T, Ni_T, guztizko hidrokarburoak, guztizko P	Hiru hilero	Kanpokoa
2	Luzatze-guneko ur sanitarioak	pH, OEK, DBO_5, SS, olioak eta koipeak, amonioa, detergenteak	Hiru hilero	Kanpokoa
3	Zorroen guneko eta produkzio-bulegoetako ur sanitarioak	pH, OEK, DBO_5, SS, olioak eta koipeak, amonioa, detergenteak	Hiru hilero	Kanpokoa

Sustatzaileak isurketak kontrolatzeko kutxetari dagozkion UTM koordenatuak adierazi behar ditu.

c) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren 255. artikulua), eta horretarako, aurreko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

d) Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara eta Iparraldeko Ur-Konfederaziora bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen baditu.

f) Titularrak urtero uren kalitateari buruzko araudiak araututako gai arriskutsuen isurketan (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarria) dagoenaren inguruko adierazpena igorriko du. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

g) Halaber, aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzeko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da, efluentearen ezaugarriek baimenduekiko izan ditzaketen desbiderapenei, horien kausei eta horiek zuzentzeko hartutako neurriei buruzkoa.

h) Parametroen analisia «Standard Methods For the Examination of Water and Wastewater» txostenean (APHA, AWWA, WPCF, azken argitalpena) edo «ASTM Water and Environmental technology» txostenaren 11. sailean jasotako metodo normalizatuetako baten bidez egingo da. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera metodo egokiena hautatuko da. Egun erabiltzen diren metodoen bestelakoak diren analisi-metodoak erabil daitezke, kutsatzaileen kontzentrazioa modu egokiagoan definitu ahal izateko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

i) Egoki deritzonean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arazketa-instalazioak ikuskatuko ditu eta efluentea neurtu eta aztertu ahal izango du, isurketen emariek eta parametroek baimendutako mugak gainditzen ez dituztela egiaztatu ahal izateko. Era berean, titulazio egokia duen pertsona bat, arazketa-instalazioak ustiatzeko arduradun izendatzeko eska diezaioke titularrari.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Energia elektrikoaren kontsumoa	kWh/produzitutako t
Kontsumitutako ura	m^3/produzitutako t
Olio eta taladrinaren kontsumoa	kg/produzitutako t
Sortutako prentsa-iragazkien opilak	kg/produzitutako t
Sortutako txatarra	t/produzitutako t
Txirbilen sorkuntza	t/produzitutako t
Sortutako hondakin arriskutsuak	Hondakin arriskutsu kg/produzitutako t
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	Hondakin ez-arriskutsu kg/ produzitutako t

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta inguruneareN kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Gainera, isurketaren uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak hiru hilean behin bidali behar zaizkio Ingurumen Sailburuordetzari.

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-

mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du, modu egokian xehatuta.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (28110 epigrafea, «Metalezko egiturak eta euren atalak fabrikatzea»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Aldetu, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, produktu kimikoak, hondakin-uren arazketa-hondakinak eta abarrak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

j) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

k) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, bertan tratatzeko.

l) Orokorrean, jabari publiko hidraulikoko ura kutsatu edo horren ingurumena degrada dezaketen hondakin solidoak, obra-hondakinak edo substantziak metatzeko debekua ezartzen da, horien izaera eta uzteko lekua edozein dela ere.

m) Titularrak beharrezko arreta-neurriak hartuko ditu produktuak, erregaiak, erreaktiboak, etab. gordetzeko andeletan ustekabean sortutako isuriak, eta horiek ontziz aldatzerakoan sortutakoak ibilgu publikoetara irits ez daitezen.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

p) Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez «by pass» bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. «By pass» horretatik ustekabeko isuri bat sortuko balitz, titularrak –Ingurumen Sailburuordetzara berrogeita zortzi orduko epean bidali behar duen txostenaren bidez– segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko luke.

Bi kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ikuskapenaren ondoren, egokitzat jotzen bada, egokiak diren jarduketei ekingo zaie, Uren Legearen 105. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

q) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ezbeharrez gertatzen diren isurketak, kontrolik gabeko isurketak, zaratei buruzko kexak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

r) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 18 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara eta Iparraldeko Ur-konfederaziora. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

s) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, erakunde eskudunaren aurrean bideratutako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzean, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Aldetu, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da eta Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemaren bidez (www.eper-euskadi-net web orrian eskuragarri). Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia

Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. idatz-zatiari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE araudian aurreikusitako erregistratu eta ebaluatzeko prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izateko, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako Bigarren idatz-zatiko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.2.4 (araztu eta husteko instalazioak. Burutzeko jarduketak); B.3.1.e) eta B.3.2.c) (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.3.1.j) (PCBak edukitzearen adierazpena); B.3.1.m) eta B.3.2.e) (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.4 (lurzoruaren kalitatea babesteari buruzko baldintzak); C.1 (atmosferara egindako isurtzeen kontrola, horiek izanez gero); C.2 (pH neurgailua eta emari-neurgailuaren instalazioa); C.4 (zarata kontrolatzeko proposamena); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1 (mantentze-lanetan sortutako isurtze eta hondakinen balioespena); D.3.a) (prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g) (produktu kimikoen biltegiratzeen egiaztapenak); D.3.h) (larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.i) (kubetak husteko maniobraren protokoloa); D.3.s) (suteen aurkako babesari buruzko ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du instalazioak aurkeztutako proiektuaren eta Ebazpen honetan xedatutakoaren arabera eraiki eta hornitu direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan jasotako isurketen baldintzei dagokienez, Jabari Hidrauliko Publikoaren Erregelamenduaren 261. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoak, eta baldintza horiek hainbat aldiz ez betetzea berrikusi, bertan behera utzi eta indargabetzeko kausa izango dira.

Seigarrena.– Aldetu, S.A. enpresak Ebazpen honen xede den soldadura duen edo soldadurarik gabeko hodi kalibratua fabrikatzeko, eta automobilgintza sektorerako hodia eraldatu eta mekanizatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik gertatuz gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Aldetu, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Aldetu, S.A. enpresari, Lemoako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 22a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.